

Irekita matrikula Kirol-hezitzailea eta Komunikazioa erakundeetan aditu tituluetan

2014/11/11

Mondragon Unibertsitateko bi aditu titulu propio eskainiko dira urte berriarekin batera: **Kirol-hezitzailea** eta **Komunikazioa erakundeetan aditu titulua**. Graduondo biek, astean behineko eskolak presentzialak izango dituzte, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Aretxabaletako campusean. Bi bideo laburretan jaso dire aditu horien ezaugarri nagusiak. Gainera, **abenduaren 11n, arratsaldeko 18:30etan, Infomazio saio irekiak egingo dira Aretxabaletan.**

KIROL-HEZITZAILEA ADITU TITULU

Aurrez aurreko modalitateko graduondo hau zuzenduta dago hiru hartzailerik multzo nagusiri: batetik, Lehen Hezkuntza (LH), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) eta Batxilergoko gorpuztze hezkuntzako irakasleei. Bestetik, Eskola Kirola programako koordinazio lanetan ari direnei, eta, azkenik, kirol hastapenean eta kirol erakundeetan lanean jardun duen profesional orori: kirol elkarte, federazio eta administrazioetako ordezkariak, kirol arduradunei...



Aditu titulu biak Aretxabaletako campusean eskainiko dira.



- Informazio gehiagorako: [Kirol-hezitzailea aditut titulua](#).

KOMUNIKAZIOA ERAKUNDEETAN ADITU TITULU

Aditu titulu hau zuzenduta dago lanean dihardutenei eta lizentziadun berriei. Batetik, lanean dabiltzanei enpresa, elkarte eta erakundeetan, batez ere, komunikazioan, kudeaketan, koordinazioan edo zuzendaritza lanetan; bestetik, aditu titulu hau oso egokia da enpresa-komunikazioaren nondik norakoak ezagutu eta menderatu nahi duten lizentziadun zein graduonduentzat, bereziki ikasketa hauek dituztenentzat: Ikus-entzunezko Komunikazioa, Humanitateak eta Enpresa, Kazetaritza, Lan Harremanak eta Industria Antolakuntza Ingeniaritza.



- Informazio gehiagorako: **Komunikazioa erakundeetan aditu titulua.**